



Iruñeko haur-eskoletan bertako jakiak, ekologikoak eta sasoikoak prestatzeko bidean

Estitxu Eizagirre Kerejeta

@eeizagirre

12 udal haur-eskoletako 11 jantokiak kudeatzea Iruñeko Udalak hartu du berri ere bere gain (Jose Maria Huarte haur-eskola da salbuespena, egun erdiko zaintza soilik eskaintzen baitu, bazkaririk eman gabe). Menu osasuntsuak txertatzeko txostena eskatu dio Nafarroako Agroekologiako Azpiegitura eta Teknologia Institutuari (INTIA) eta lan horrek ekoizleei zuzenean erostearen alde egiten du, bertako produktuak, garaian garaikoak eta ekologikoak lehenetsiz. Menuetan aldaketak ekarriko dituen produktu zehatzak proposatzen ditu. Enpresek urrundik garraioz ekarritako elikagaien aldean, sistema berriak onurak ekarriko ditu osasunean, zaporean, gizartean, ingurumenean eta bertako ekonomian.

Kontratazio publikoan parte hartu ahal izango dute elikadura kate osoko enpresa txikiek, autonomoek eta irabazi asmorik gabekoek, "kontratu erreserba" bidez, euren neurri eta beteko duten funtziora egokituta.

Oinarrizko elikagaiak, aldaketaren ikur

Txostenak dio oinarrizko elikagaien protagonismoa eta kalitatea berreskuratu

behar dutela. Ogi, esneki, olio eta patatek izan behar dutela kalitate gorenekoak eta aldaketaren ikur gisa hartuko direla.

Hello Buztintxuri eta Donibane, aldatzen hasteko egokienak

Jantokia duten 11 haur-eskoletako sukaldeko langileekin eta zuzendaritzekin bildu da INTIA eta ondorioztatzen du proba piloturako prestatuena Hello Buztintxuri eta Donibane haur-eskolak direla. Lehen hilabeteetan, menu zehatzak diseinatu bitartean, orain arte bezala jarraituko dute.

Garestiagoa, baina bideragarria

Haur-eskola hauetan menuak lau adin taldetan banatzen dituzte: edoskitzailak (4tik 10 hilabetera), oinezkoak (11tik 19 hilabetera), ertainak (20tik 23 hilabetera) eta handiak (24tik 31 hilabetera). INTIAren txostenak menu bakoitzaren batez besteko egungo kostuaren eta proposatutako elikagaien kostuaren zenbakiak eman ditu: edoskitzailen menua 0,762 euro da gaur egun eta proposatutakoa 1,057 euro litzateke. Oinezkoena, egun 0,186 euro eta proposaturikoa 0,319 euro. Ertainena egun 0,319 euro eta proposatutakoa 0,506. Eta handiena egun 1,073 euro eta proposaturikoa 1,468.

EKONOMIAREN TALAIAN

Lemoiz ez, Garoña ere ez



Juan Mari Arregi

Euskal Herritik oso gertu dagoen Garoñako zentral nuklearraren egungo egoerak Lemoiz ixtearen alde izan ziren mobilizazio urteetara garamatza. Helburu hura lortu zen azkenean. Basordako kalan jarraitzen du zementuzko munstroak deserai-ki gabe, eta erokeria nuklear hura erantzukizun faltaren eta ilegaltasunaren testigu isila da orain.

Garoñako zentrala 1971n jarri zen martxan eta 2011n bete zituen 40 urte. Orain PPren Gobernuaren erabakiaren zain dago, bere bizitza gutxienez 2031 arte luzatzeko. Espainiako Parlamentuan oposizioko alderdiak berrirekitzearen aurka azaldu dira. Eusko Jaurlaritzak, Eusko Legebiltzarrak, batzar nagusiek eta euskal jendarteak oro har, asmo horren kontrako iritzia erakutsi du. Eta gobernu demokratiko batek herritarren borondatea bere egin beharko luke. Baina esperientziak esaten digu gobernu askok –orain espainiarrak bezala– ez duela hori errespetatzen.

Garoñak sortzen duen mehatxu nuklearraren aurrean, nahitaezkoa litzateke, adostasun antinuklear zabala daukagun Euskal Herrian, mobilizazio handi bat josten hastea. Gobernuak, Parlamentuak eta euskal erakundeek esaten badute Garoña berriz zabaltzearen aurka daudela, jar daitezela manifestazio horren buruan. Duela urte mordo bat lortu genuen mobilizazioekin Lemoiz erabat gelditzea, orain gauza bera lortu dezakegu Garoñarekin, ez baita Burgosko kontu bat, Euskal Herriari ere bete-betean eragiten dio. Espainiako Estatu barruko beste herrialdeetako antinuklearrentzat elkartasun ikur ere izan daiteke –Frantziako Estatuko zentralak ere hor ditugu, ez ahaztu–, Garoña gelditzea aurrekari ona izan baitaiteke Almaraz, Ascó Cofrentes, Vandellós II eta Trilloko zentralak ixteko.